

Softwareentzako mailing-a: gomendioak 2023-09

TIKETBAIREN XML-A BEHAR BEZALA OSATZEKO ETA ERROREAK SAIHESTEKO GOMENDIOAK

1) ESKEMAREN BALIOZTAPENAK, 2023KO URRIAN ALDATUKO DIRENAK

A. % 0ko baliokidetasun errekgua

BEZaren araudiak tasetan izan dituen aldaketen ondoren, «TipoRecargoEquivalencia» % 0 duen eremua balio esanguratsu bat izango da, % 0 zerga tasarekin soilik lotu daitekeena.

Gaur egun, % 0 ez den zerga tasetan errekgurik ez dagoela adierazteko 0.0 baliokidetasun errekgua jartzea ez da jotzen erroretzat, baina balioztapenak urrian eguneratzea eta hori errore gisa konputatzea aurreikusi da.

OKERRA	ZUZENA
<BaseImponible>3.30</BaseImponible>	<BaseImponible>3.30</BaseImponible>
<TipoImpositivo>4.00</TipoImpositivo>	<TipoImpositivo>4.00</TipoImpositivo>
<CuotaImpuesto>0.13</CuotaImpuesto>	<CuotaImpuesto>0.13</CuotaImpuesto>
<TipoRecargoEquivalencia>0.00</TipoRecargoEquivalencia>	<TipoRecargoEquivalencia>0.00</TipoRecargoEquivalencia>
<CuotaRecargoEquivalencia>0.00</CuotaRecargoEquivalencia>	<CuotaRecargoEquivalencia>0.00</CuotaRecargoEquivalencia>

TipoRecargoEquivalencia eremuan 0.00 balioa jarriko da Tipoimpositivo=0% den kasuan, baldin eta eragiketari baliokidetasun errekgua aplikatzen bazaio.

B. Informatu behar ez diren eremuetan ez jarri 0.00

Eskemagatik informatu gabe utzi daitezkeen eremuak (minOccurs = "0") ez dira 0.00 balioarekin informatu behar beharrezkoak ez badira. Oraingo, kasu horietan ez da errore izaten, baina urrian balioztapenak eguneratzea eta errore gisa konputatzea aurreikusten da.

Kasu okerren adibideak:

Faktura adibidea: «NoSujeto» banakapena zuzena da, baina badu beharrezkoa ez den «SujetoNoExento» banakapen bat zeroekin bete dena

```
<DesgloseFactura>
  <Sujeta>
    <NoExenta>
      <DetalleNoExenta>
        <TipoNoExenta>S1</TipoNoExenta>
        <DesgloseIVA>
          <DetalleIVA>
            <BaseImponible>0.00</BaseImponible>
            <TipoImpositivo>0.00</TipoImpositivo>
            <CuotaImpuesto>0.00</CuotaImpuesto>
          </DetalleIVA>
        </DesgloseIVA>
      </DetalleNoExenta>
    </NoExenta>
  </Sujeta>
  <NoSujeta>
    <DetalleNoSujeta>
      <Causa>RL</Causa>
      <Importe>150.00</Importe>
    </DetalleNoSujeta>
  </NoSujeta>
</DesgloseFactura>
```

Faktura adibidea: «Exento» banakapenak badu beharrezkoa ez den «NoSujeto» banakapen bat zeroekin bete dena:

```
<TipoDesglose>
  <DesgloseFactura>
    <Sujeta>
      <Exenta>
        <DetalleExenta>
          <CausaExencion>E1</CausaExencion>
          <BaseImponible>5000.00</BaseImponible>
        </DetalleExenta>
      </Exenta>
    </Sujeta>
    <NoSujeta>
      <DetalleNoSujeta>
        <Causa>OT</Causa>
        <Importe>0.00</Importe>
      </DetalleNoSujeta>
    </NoSujeta>
  </DesgloseFactura>
</TipoDesglose>
```

C. Eskemaren hurrengo bertsio batean nahitaezkoak izango diren eremuak

Komeni da kontuan izatea jarraian adierazten diren eremuak nahitaezkoak direla. Oraingoz, horiek informatzen ez dituzten XML-ak ez dira errefusatzen, baina urrian balioztapenak eguneratzea eta hori errore gisa konputatzea aurreikusten da.

ALTAko fitxategia	BALIOGABETZE fitxategia.
Jaulkitzailearen AbizenakIzenaSozietatelzena	Jaulkitzailearen AbizenakIzenaSozietatelzena
Fakturaren goiburuko Faktura zk.	Fakturaren goiburuko Faktura zk.
Fakturaren deskribapena	TBAI lizentzia
Xehetasunaren deskribapena	Softwarearen izena
Ordez tutako Faktura Zuzenduarien IDren faktura zk.	Softwarearen bertsioa
AurrekoFakturaZk.	
AurrekoFakturaSinaduraSignatureValue	
TBAI lizentzia	
Softwarearen izena	
Softwarearen bertsioa	

D. Fakturaren seriea: ez jarri tarterik edo karaktere arrarorik

Kontuan izan behar da «fakturaren seriea» eremua QR-a egiaztatzeko URLan sartzen dela.

<https://tbai.egoitza.gipuzkoa.eus/qr/?id=TBAI-44619360G-261020-EzyQEMtxw37Gm-161&s=F2020&nf=419&i=1500.00&cr=182>

Hau da, seriearen testua URL baten parte izango da. Horregatik, ez sartu URLetan arazoak sortzen dituzten karaktereak:

- Zuriuneak
- Karaktere bereziak, hala nola <, >, /, ¿, ?, :

Baldintza hori ezin baduzu bete, ez ahaztu karaktere berezien ihes sekuentziak erabiltzea URLan sartzeko orduan.

<https://tbai.egoitza.gipuzkoa.eus/qr/?id=TBAI-B20507612-150423-beq2OH35rkCUC-199&s=Factura+Sinplifikatua&nf=29637&i=7.60&cr=018>

* Espazioaren ihes sekuentzia "+" da

2) ERRORERIK OHIKOENAK ETA NOLA SAIHESTU

5015 Lerroetako zenbateko osoen baturak bat etorri behar du adierazitako fakturaren zenbateko osoarekin

5016 Lotua eta Salbuetsi gabea banakapenean adierazitako zenbatekoen batura ez dator bat xehetasun lerroetan jasotakoarekin. Balioztapen hau ez da aplikatuko erregimen gakoetako bat 03, 05, 06 edo 09 denean, Faktura zuzentzailea «I» motakoa denean edo faktura mota R2 edo R3 denean

5017 Lotu gabea edo Salbuetsia banakapenetan adierazitako zenbatekoak ez datoz bat xehetasun lerroetan jasotakoarekin. Balioztapen hau ez da aplikatuko erregimen gakoetako bat 03, 05, 06 edo 09 denean

5018 Lerroetako batean kalkulaturako BEZak bat etorri behar du onartutako tasa batekin.

Sarekin hasten diren errore guztiak lerroetatik datozen errorearen ondorio dira. Garrantzi handikoa da honako hauen berri ematea:

- 1) "Zenbateko unitarioa" BEZik **gabe**, aplikatu den "Deskontua", **EUROTAN beti (ez %-tan) eta BEZik gabe** lerroaren «Zenbatekoa osoa», BEZa **barne**
- 2) Lerroetako informazioak koherentzia izan behar du Fakturaren banakapenean jarri denarekin
- 3) Lerroen baturak bat etorri behar du fakturaren zenbateko osoarekin

Komeni da arreta jartzea dezimaletan doikuntza errorerik gerta ez dadin (sistemak 8 dezimal onartzen ditu gehienez). Hau da, gomendatzen da Kantitatea eta Zenbateko Unitarioa eremuak 8 hamartarrekin betetzeko aukera ematea.

Aprobetxatu daitezke, bai kalkulua atzeraka egiten denean (unitate bakoitzeko zerga oinarria prezioetik kalkulatzen bada, BEZa barne), bai aurreraka egiten bada (prezioa, BEZa barne, zerga oinarri batetik kalkulatzen bada).

Ez da komeni lerro gehigarriak erabiltzea biribiltzeko.

Askotan gerta daiteke errore horietako bi faktura berean agertzea. Hauek izaten dira arrazoi ohikoenak:

Deskribapena	Erroreak
Deskontuaren eremua oker bete da: BEZarekin edo ehunekotan eman da.	5016; 5018
Deskontuaren eremuaz gain, linearen zenbateko osoa ere informatu da gaizki: oker kalkulatu da, deskontuari buruzko datuekin.	5015; 5016
Zenbateko unitarioa gaizki bete da: BEZarekin eman da.	5016; 5018
Zenbateko unitarioaz gain, linearen zenbateko osoa ere informatu da gaizki.	5015; 5016

5016 eta **5017** erroreen kasuan, gogorarazi behar da xehetasun lerroetan adierazitako datuekin sistemak behar diren kalkuluak egiten dituela lerro bakoitzari dagokion zerga oinarria eta BEZ kuota ezagutzeko. Kalkulatutako zerga oinarri eta BEZ kuota horiek banakapenetan informatutakoekin alderatzen dira, emandako datuak zuzenak direla egiaztatzeko. Alderaketa hori 2 bloketan egiten da.

- Alde batetik, BEZ kuota 0 eman duten datu kalkuluak multzokatzen dira, eta BEZ kuota 0 duten edo kuotarik gabeak diren banakapen hauen baturekin alderatzen dira: % 0 tasa, Lotua eta salbuetsia, Salbuetsi gabea, eta SPIa duen eragiketa lotua. Bi blokeetako zenbatekoak desberdinak badira, **5017** errorea gertatzen da.
- Bestalde batetik, BEZ kuota 0 eman ez duten datu kalkuluak multzokatzen dira, eta 0 zerga tasarik ez duten «lotua eta salbuetsi gabea» banakapenen baturekin alderatzen dira. Aipatutako zifra ez den BEZ kuota bat dutenak dira horiek. Bi blokeetako zenbatekoak desberdinak badira, **5016** errorea gertatzen da.

Hurrengo adibidean, xehetasun lerroak ez dira ongi informatu. Zenbateko osoa BEZik GABE adierazi da eta 5015 eta 5016 erroreak daude.

Lerro hauei dagokienez:

```
<DetallesFactura>
  <IDDetalleFactura>
    <DescripcionDetalle>Producto 1</DescripcionDetalle>
    <Cantidad>1.00</Cantidad>
    <ImporteUnitario>10.36</ImporteUnitario>
    <ImporteTotal>10.36</ImporteTotal>
  </IDDetalleFactura>
  <IDDetalleFactura>
    <DescripcionDetalle>Producto 2</DescripcionDetalle>
    <Cantidad>1.00</Cantidad>
    <ImporteUnitario>10.09</ImporteUnitario>
    <ImporteTotal>10.09</ImporteTotal>
  </IDDetalleFactura>
  <IDDetalleFactura>
    <DescripcionDetalle>Producto 3</DescripcionDetalle>
    <Cantidad>1.00</Cantidad>
    <ImporteUnitario>1.35</ImporteUnitario>
    <ImporteTotal>1.35</ImporteTotal>
  </IDDetalleFactura>
</DetallesFactura>
<ImporteTotalFactura>23.90</ImporteTotalFactura>
```

Banakapenei dagokienez:

```
<DesgloseFactura>
  <Sujeta>
    <NoExenta>
      <DetalleNoExenta>
```

```

<TipoNoExenta>S1</TipoNoExenta>
<DesgloseIVA>
  <DetalleIVA>
    <BaseImponible>20.45</BaseImponible>
    <TipoImpositivo>10.0</TipoImpositivo>
    <CuotaImpuesto>2.05</CuotaImpuesto>
    <OperacionEnRecargoDeEquivalenciaORegimenSimplifi
    cado>N</OperacionEnRecargoDeEquivalenciaORegime
    nSimplificado>
  </DetalleIVA>
  <DetalleIVA>
    <BaseImponible>1.35</BaseImponible>
    <TipoImpositivo>4.0</TipoImpositivo>
    <CuotaImpuesto>0.05</CuotaImpuesto>
    <OperacionEnRecargoDeEquivalenciaORegimenSimplifi
    cado>N</OperacionEnRecargoDeEquivalenciaORegime
    nSimplificado>
  </DetalleIVA>
</DesgloseIVA>
</DetalleNoExenta>
</NoExenta>
</Sujeta>
</DesgloseFactura>

```

Lerroak honela informatu behar ziren

Xehetasuna	Kantitatea	Zenbateko unitarioa	Dtua €	Zenbateko osoa
1. produktua	1	10,36000000 €	0,00 €	11,39600000€
2. produktua	1	10,09000000 €	0,00 €	11,09900000 €
3. produktua	1	1,35000000€	0,00 €	1,40400000 €

1153 Hartzailearen IFZk formatu okerra du.

1153 errorea gertatzen da hartzailearen IFZk behar den formaturik ez duenean, dela IFZ hori ez delako existitzen, dela kalkulaturako letra okerra delako.

Faktura sinplifikatuei buruz informatu beharrean, faktura osoei buruz informatzen denean (gezurrezko bezeroak erabilita) gertatzen da. Informatzen ari den ticket edo faktura sinplifikatuan hartzailearen informaziorik ez dagoenean, TicketBAIra bidaltzen den XML fitxategian ez da «Hartzaileak» blokea sartu behar.

```
<element name="Destinatarios" type="T:Destinatarios" minOccurs="0"/>
```

Saiatu ez sortzen XML-ak "Hartzaileak" atalarekin, gezurrezko informazioa edo informazio ez-errealak adierazteko. Hona hemen gezurrezko bezero ez-balioudunen adibideak:

00000000T HAINBAT BEZERO

5040 Jaulkitzaile horrentzat badago faktura bat serie, zenbaki eta jaulkipen urte hori duena.

Ez berrerabili fakturaren seriea eta zenbakia ekitaldi berean. Fakturak zenbakitzeko sekuentziak jarraitua izan behar du, eta ekitaldi berean ez litzateke serie eta zenbaki bera berrerabili beharko.

Oso errore ohikoa da fakturak gailu desberdinetatik egiten dituzten jaulkitzaileengan. Garrantzi handikoa da gailuak konfiguratzea bakoitzak serie desberdinetan faktura dezan.

088 Errorea sinadura egiaztatzean

"008" errorea modu periodikoan ateratzen da, sinadura era aleatorioan berrikusten baita errendimendu arrazoiengatik. Izan ere, sinadura ez zaie berrikusten faktura guztiei.

Sinaduraren egiaztapenak eman dezakeen errorea hainbat arrazoiengatik gerta daiteke:

- UTF-8aren kodeketa desegokia (azentua duten karaktereak gaizki kodifikatzea edo toki batzuetan tarteak agertzea),
- HTTParen goiburuan ez jartzea "Content-Type: application/xml; charset = UTF-8"
- <X509Certificate> etiketa ez gehitzea,
- <DigestValue> etiketak gaizki kalkulatzeko,
- XML-a aldatzea sinatu eta gero,
- Parametro hauekiko batzuk gehituta ez egotea:
 - SigPolicyID=https://www.gipuzkoa.eus/ticketbai/sinadura
 - SigPolicyHash=vSe1CH7eAFVKGNOX2Y7NI9XGUoBnziDA5BGUSsyt8mg=
 - SigPolicyHash Algorithm = SHA256 edo handiagoa
 - SPURI = https://www.gipuzkoa.eus/ticketbai/sinadura

Badago EBko Administrazio Digitalaren tresna oso erabilgarri bat sinadurako erroreak diagnostikatzeko balio duena. <https://ec.europa.eu/digital-building-blocks/DSS/webapp-demo/validation>

3) FAKTURAK OKERTZAT MARKATZEN DITUZTEN OHARTARAZPENAK, ERRORERIK EZ DAKARTENAK

A. 010 errorea Kateamendu errore posiblea

Kateamendu errore posiblearen 010 mezua ez da errore bat, ohartarazpen bat baizik, eta fitxategia ez da errefusatzeko. Kateamendu erroreak dituzten fakturak ez dira zuzendu behar. Kateamendu errorea sortzen duten arazoak bakarrik zuzendu behar dira lehenbailehen. Ohartarazpenak ez zaizkio komunikatzen softwareari bidalketen erantzunetan, astero komunikatzen dira software bakoitzaren garatzaile bakoitzari bidaltzen zaizkion jakinarazpenetan. Ohartarazpenak bakarrik dituzten fakturak beti konputatzen dira BEZaren kalkuluetan.

Desordenatutako bidalketak egun berekoak direnean bakarrik onartzen dira. Hau da, TicketBAira bidaltzeko data eta fakturaren jaulkipen data berdinak izan behar dira.

B. 013 Gailuaren ziurtagiria onartu gabe dago

Erabiltzaileak softwarea erregistratu eta onartzea sustatzea

Gailu ziurtagiri bat erabiltzen duen software bat instalatu ondoren, erabiltzaileari adierazi beharko litzaioke egoitza elektronikora jo behar duela, eta gailuaren ziurtagiria onartu, fakturak bere izenean bidali ahal izateko.

4) ENTREGATUTAKO FAKTURAN AGERI DIREN DATUAK ETA XML FITXATEGIAN BIDALITAKOAK EZIN DIRA DIFERENTEAK IZAN

Iritsi diren XML fitxategi batzuetan desadostasunak aurkitu izan dira, inolako justifikaziorik gabe, fitxategian jasotako informazioaren eta fakturak dakarrenaren artean.

Araudiak ezartzen duenez, sistema informatikoak ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatu behar ditu. Eragiketen faktura edo frogagiria egin aurretik sortu behar den XML fitxategi informatikoak, Zerga Administrazioa berehala bidaltzeko, egindako eragiketaren faktura edo frogagiriari dagozkion datuak jaso behar ditu, besteak beste.

Fakturazio erregistroen osotasuna, bortxaezintasuna eta aldaezintasuna ezartzen duten printzipioei jarraituz, fakturazio datuak behin erregistratuta, datu horiek babestuta geratzen dira biltegiatutako datuen zehaztasuna, benetakotasuna eta osotasuna arriskuan jar dezakeen edozein ekintzaren aurka, halako moldez non erregistratutako datu bakar bat ere ezingo baitu aldatu ez sistema informatikoak berak, ez erabiltzaileak, ez kanpoko ezein gailu, sistema edo programa informatiko edo elektronikok.

Jatorrizko edozein fakturazio erregistroan jasotzen diren datuak osorik edo partez ezabatzea, gehitzea edo aldatzea joko da fakturazio erregistroen aldaketatzat. Hortaz, Zerga Administrazioa bidaltzen diren datuek fidagarriak eta osoak izan behar dute fakturan agertzen direnekiko, bi salbuespen eginda: araudiarekin bat egon daitezkeen desadostasunak (datu pertsonalen babesa –679/2016 Erregelamendua–, moneta diferentzia, edo beste batzuk) edo Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak berariaz emandako baimena.

Fakturazio erregistroen trazabilitatea egiteko, sistema informatikoak funtzionalitateak eskaini behar ditu erregistratutako datuen jarraipena modu argi eta fidagarrian egiteko eta bi dokumentuen artean egon litezkeen desadostasun horiek egiaztatu ahal izateko.

Baldintza horiek ez betetzeak araudiak ezartzen dituen ondorio zehatzaileak eta, hala badagokio, erregistrokoak ekarriko ditu.

5) GAKO ETA BALIO BERRIAK

Abuztuaren 6ko 357/2023 Foru Aginduaren bidez (2023ko abuztuaren 21ean argitaratua eta 2023ko urriaren 15ean indarrean jarriko dena), aldaketa hauek sartu dira abenduaren 23ko 521/2020 Foru Aginduan, zeinaren bitartez arautzen baitira TicketBAI Softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitopena:

1. TicketBAI alta fitxategiaren egitura eta baliozkotzeak izena duen I. eranskinetik I. apartatuan (altako mezuen erregistro eremuak eta zehaztapen funtzionalak) ageri diren hurrengo eremuak aldatu dira:

Blokea	Datuak/ Multzoa	Datuak/ Multzoa	Datuak/ Multzoa	Datuak/ Multzoa	Datuak/ Multzoa	Datuak/ Multzoa	Datuak/ Multzoa	Datuak/ Multzoa	Formatua	Deskribapena	Balio posibleak
Faktura	Fakturaren datuak	Fakturaren xehetasunak	Fakturaren xehetasunen IDa 1etik 1000ra	Deskontua					Dezimala(12,2)	Faktura lerroaren deskontuaren zenbatekoa eurotan.	
				Zenbateko osoa					Dezimala(12,2)	Faktura lerroaren zenbateko osoa, BEZa BARNE.	

eta honela geratu dira idatzita:

Blokea	Datuak/ Multzoa	Datuak/ Multzoa	Datuak/ Multzoa	Datuak/ Multzoa	Datuak/ Multzoa	Datuak/ Multzoa	Datuak/ Multzoa	Datuak/ Multzoa	Formatua	Deskribapena	Balio posibleak
Faktura	Fakturaren datuak	Fakturaren xehetasunak	Fakturaren xehetasunen IDa 1etik 1000ra	Deskontua					Dezimala(12,8)	Faktura lerroaren deskontuaren zenbatekoa eurotan.	
				Zenbateko osoa					Dezimala(12,8)	Faktura lerroaren zenbateko osoa, BEZa BARNE.	

Deskontuaren kasuan, BEZik gabe adierazi behar da. Hau da, faktura lerroan eurotan adierazten den deskontuaren zenbatekoak BEZik gabe joan behar du. Era berean, banakapenak zabalduko dira:

- 2tik 4ra zabalduko da Lotu gabea banakapenaren xehetasuna
- 6tik 12ra zabalduko da BEZa banakapenaren xehetasuna

2. TicketBAI alta fitxategiaren egitura eta baliozkotzeak izena duen I. eranskinetik II. apartatuaren barruan (Zerrenda motako eremuetan baimendutako gakoak eta balioak) eremu bat gehitzen zaio L9 blokeari (BEZaren eta zerga garrantzia duten eragiketen araubide bereziaren gakoak), eduki honekin:

Balioak	Deskribapena
54	Kanarietan, Ceutan eta Melillan kokatutako establezimendu iraunkorretatik egindako eragiketak

3. TicketBAI fitxategiaren egitura eta baliozkotzeak izena duen I. eranskineko II. apartatuaren barruan (Zerrenda motako eremuetan baimendutako gakoak eta balioak), bi eremu gehitzen zaizkio L13 blokeari (Zergari lotuta ez egotearen arrazoia), eduki honekin:

Balioak	Deskribapena
VT	Lotu gabea, hirugarrenen kontura egindako salmentak (zenbatekoa ez da konputagarria BEZaren eta PFEZaren ondorioetarako).
IE	Zergaren aplikazio lurraldean lotu gabea, lokalizazio erregelengatik, baina EBko beste estatu batean atzerriko zerga, PZIZ/KZO edo BEZa jasanaraziz.

Aldaketa hauek 2023 urriaren 15eko egunetik aurrera aplikatuko dira, hau da, ezin izango dira data honen aurretik aipatutako gako eta balio berriak sartu.

Azkenik, jakinarazten dizugu irailetik aurrera astero jakinaraziko zaiela TicketBAI alta duten fitxategietako zergadunei, aurreko astean jasotako akats edo ohartarazpenekin.